

### **Gorostia/Korostia (*Ilex aquifolium* L.)**

Askotan latinez izaten diren izen zientifikoen esanahiek, zuhaitzen ezaugarriren bati buruzko pistak ematen dituzte: (*Ilex*) artearenaren antzeko hostoa eta (*aquifolium*) arantzadun hostoa. Hala ere, ale handi eta garatuetan, arantza horiek desagertu egiten dira, eta lurretik urrunen dauden adarretan, ertza erabat leuna duten hostoak aurkituko dituzu.

Egutegiaren garai berezi batekin lotu beharko bazenu, ziurrenik ez zenuke zalantzarik izango Gabonekin lotzeko. Aldi horretan, udaberriaz geroztik heltzen joan diren fruitu gorri deigarriak ikusten dira ale emeetan. Hegazti askoren elikagai gogokoena dira, batez ere, zuhaitza bera bezala babestuta dagoen hegazti batena: basoilarra.

Gorostiaren zurak, ezpelarenak bezala, ez du flotatzen. Oso gogorra eta astuna da, baina tindagaiak oso ondo onartzen ditu eta ebanoaren zur garestia imitatzeko erabili izan da.

Gorostiak lorategietan eta batzuetan heskaiak egiten aurkituko dituzu, urte osoan berde egoteaz gain, inausketak ondo onartzen baitituzte. Gabonetako apaingarri gisa baten bat erosi nahi baduzu, ziurtatu mintegiko ale bat dela, naturan babestuta eta debekatuta baitago biltzea.



*Fruitua emandako ale emea*



*Lore arrak*



*Gorostiaren ohiko hostoaren xehetasuna*